

Emozional zubiak

Zer dira gure arteko kodigoak ? Zertan elgar ezagutzen dugu denok ?

Elkartzen gaituzten kodigo **horien bidez elgar ulertzen dugu.**

Elgar ulertuz gero, **sare amankomun hortan izanez gero, agertzen da** agian **sortzailea.**

Sortzaileak konpartitzen dugun gauza horren bazterrean jartzen da eta bere begirada ekartzen dio.

Eta hor, bere begirada izaten ahal da hauskorra, transgresorea, nahi duena... baina **sortzailea beti abiatzen da elgarren artean partekatzen dugun zerbaitetik.**

Izan dadin euskararen kezka...maskaradak iraungo duia edo ez...edo ez dakit zer... hori guzia partekatzen dugun zerbait da...**hortik ekartzen ahal du bere begirada** : hausten ahal du, eskandalizatzen ahal du, nahi duena egiten ahal du, ez du kezkatu beharrik : « tradizioean naizea edo ez... », horrek ez du inporta baldin eta garai hortan elgarren artean konpartitzen dugun zerbaiten inguruan ari baldinbada.

Sortzaile horrek militante izan behar du. Horrek ez du erran nahi ez duela ordaindua izan behar, musutruk arizan behar duela. Militante izateak erran nahi du elgarren artean konpartitzen ditugun **gauza guzi horietaz baduela bere kezka, bere inplikazionea, bere begirada.** Eta horren inguruan duela bere ekarpena egiten...

Sortzaileak aktibo izan behar du sare emozional-sozial hortan, kezkatua izan, arrangura ukan, irauli behar du. **Bainan beti elgarren artean zerbait konpartitzea da gakoa.**

Agian gaur egungo euskal kulturaren sortzearen eta geroaren inguruko kezka hauxe da :

Euskaldun sendi edo bizi nahi dugunok, zer dugu amankomunean gaur?

Uste dut hori dela galdera eta gakoa ere bai...

Hori sendituz gero, gauzak ez dira konplikatua. Gure problema da euskaldun bezala zaila zaigula erraitea zer dugun benetan amankomunik, anitxetan ari baigira petatxuak ezartzen, galtzen, desagertzen, erasotua den kultura baten inguruan.... **Bizirik irauteko, ainitzetan,** osagarri onez eta beldurrik gabe sortzeko eta berpizteko orde,**behartuak gaude duela mendeetatik etortzen zaizkigun gauzen gordetzea, ez daitezen gal, eta ez galtze hortan erraitea** : « bai baina hau lehenago hola pikatzen zian eta ez hola »...

Lehenagoko hortan geldituz, ez dugu gerorako urratsik egiten...

Beraz bada hor galdera bat oso mingarria : zerek egiten gaitu euskaldun ? Zerek lotzen gaitu gaur ?